**Asesinato en el Molino del Cura**
Arantza Portabales

Estilo: policíaca
Editorial: Lumen. Páginas: 392
Precio: 21,90 euros

**–Precisamente, el primer capítulo relata un crimen muy truculento y narrado minuciosamente.**

–Sí, pero era necesario. No tengo líneas rojas con ningún tema. Mis anteriores novelas no eran tan violentas como, por ejemplo, las de Carmen Mola. Yo no escribo lo que se lleva. Ahora, si la trama necesita esa violencia para explicarse, la incluyo. La resolución del caso no es que el lector averigüe el quién, sino que concluya que aunque no justifique los hechos, sí pueda entender por qué alguien puede acabar blandiendo ese cuchillo y desatando esa carnicería. Entender ese mecanismo es la finalidad de esta novela.

**–La novela negra tiene un esquema rígido. ¿Le tienta desbordarlo?**

–Me encanta conocer todas las reglas de la novela negra para poder saltármelas. Hay que saltarse los códigos, pero siempre de forma justificada. El lector de este género es muy exigente: quiere un ritmo constante, no adivinar el desenlace, pero que sea coherente... Y uno se da cuenta que al final lo único que importa es la historia y cómo la cuenta, que sea coherente y honesta. Al final, las reglas se construyen o se destruyen ellas solas.

**–¿Qué recordamos al terminar una novela? ¿Tramas o personajes?**

–Mis novelas son de personajes. En todas las novelas negras muere alguien o está secuestrado, pero lo que más me gusta es cómo reacciona la gente al día siguiente del fin del mundo, es decir, cuando por ejemplo se te ha muerto una hija. Ese momento en el que empezamos todos a mirarnos de reojo a ver cómo reaccionan y a destapar cómo son porque son esos momentos cuando todo el mundo muestra su verdadera cara. No hace falta que sea un crimen: al día siguiente de que le toque el Euromillón a tu padre, empieza la novela negra de tu familia. Pasa también en los divorcios.

**–Nacida en San Sebastián, marchó con trece años a Galicia.**

–Luego pasé en Donosti otros tres años de carrera y voy muchísimo.

**–¿Habrá novela ambientada aquí?**

–Por primera vez en una de mis novelas, en 'Asesinato en el Molino del Cura' salen Donostia, Donibane, Trintxerpe y el País Vasco, cosa que me hace mucha ilusión. Pero creo que no me atrevo porque todo lo que me recuerda a mi partida de Donostia me resulta doloroso. En algún momento escribiré una novela ambientada allí, pero me falta pisar más ese suelo mío porque voy mucho, pero en estancias cortas.

## «Hay más 'reinas y grandes damas de la novela negra' que princesas Disney»

**A. M.**
San Sebastián

**–Carga usted, junto a algunas compañeras de oficio, con la etiqueta de 'gran dama de la novela negra'. ¿Le molesta?**

–Las etiquetas están para que el lector no piense que está comprando un ensayo sobre la Revolución Industrial. Dicho esto, hay más 'reinas y grandes damas de la novela negra' que princesas Disney y yo, ni soy dama, ni soy nueva, ni soy negra. Lo que distingue a una autora es su voz. Puedes cantar 'Mediterráneo' con la voz de Joaquín Sabina y puedes cantar 'Princesa' con la voz de Joan Manuel Serrat, pero la gente oirá a Serrat y a Sabina con independencia de lo que estén cantando. Entiendo que el lector necesita saber a qué tipo de novela se está aproximando. Antes decía que no tenía muchos lectores, pero sí a los mejores: ahora ya tengo muchos lectores. Siempre me ha funcionado muy bien el boca-oreja y ésa es la etiqueta que mola.

**–Sin embargo, en círculos académicos o de la crítica, a la novela negra se le mira por encima del hombro o incluso se la desdeña un poco.**

–Pues sí. Entonces es cuando hay que mirarles a los ojos y decirles que la novela romántica está desprestigiada, pero 'Orgullo y prejuicio' es u na gran novela. La policíaca también lo está, pero qué pasa con 'El nombre de la rosa', 'El largo adiós', 'El asesino dentro de mí' o con Patricia Higsmith. Qué pasa con esas grandes obras que desentrañan la naturaleza humana a través del crimen: pues que son grandes novelas. Hay mucha gente que se viene arriba diciendo que el género determina la calidad de la novela, pero no hay géneros buenos y malos, sino libros buenos y malos. Lo único malo que le sucede a la novela negra es que es comercial. Me han llegado a decir que con lo bien que escribo, por qué no hago una novela de verdad. Es más: uno de los comentarios que más me han dolido fue uno con cinco estrellas en Goodreads que decía: «Es novela negra, pero está bien escrita». Esa adversativa se te clava en el corazón.



**Agerre**
Juan Luis Zabala

***Estiloa:*** eleberria.
***Argitaletxea:*** Erein.
***Orr.:*** 120.
***Prezioa:*** 16,50 euro.

Juan Luis Zabala, bere liburuarekin Donostian. EREIN

# Juan Luis Zabalak 'Agerre' bere azken nobela aurkeztu du

## Idazle azkoitiarrak iraganaren, kulparen eta beldurren inguruko hausnarketa proposatzen du, bizikleta istripu batetik abiatuta

**IÑAKI IZQUIERDO**
Donostia

«Panfleto itxura hartzen badu tartean batzuetan, komunikabide nagusietan agertzen ez den errealitatea agertzeko da». Horrela aurkeztu du Juan Luis Zabalak 'Agerre', bere nobela berria. Iraganak ez du inoiz benetan alde egiten, eta errealitate horren inguruan josi du eleberria kazetari ohiak. Euskal Herrian pairatutako bortizkeriaren bestelako ikuspegia ematen saiatzen da idazle azkoitiarra, eta ahalegin horretan kulpa da gai nagusia.

Nobelaren abiapuntua bizikleta istripu bat da. Hortik aurrera, gauzak korapilatzen hasten dira eta beste geruza batzuk agertzen joaten dira: iragana, politika eta gizarte honetan indarkeriak utzi dituen zauriak. Zabala «barrura begiratzen duen eta zalantzak lantzen dakien idazlea da –dio Inazio Mujika Iraola editoreak–. Erantzun errazak saihesten saiatzen da, eta liburu hau da horren lekuko. Familia da bizitzaren zelula basikoena. Kasu honetan, aita eta alaba, baina kontakizuna gizartera pasatzen da ere. Iraganeko adiskidetasun istorioa dago».

Denboraren poderioz euskal gizarteak ETAren aurrean zuen jarrera nola aldatzen joan zen da kontakizunaren haria. Iragan politikoa eta gizartearen zauri kolektiboak azaleratzen dira aita eta alabaren ikuspuntuak gurutzatzen direnean, pertsonaien arteko harreman sare konplexua sortzen, tentsioz eta ñabarduraz betea. Zabalaren esanetan «kontalaria Ane da baina protagonista, aita. Herri guztietan ez bada, gehienetan Agerre bat dago. Euskalduna da eta abertzalea, ingurua horrela delako. Abertzalea inertziagatik. Edo osmosiagatik. 85 urteko andrea harrapatzen du bizikletarekin, eta emakumeak ez dio barkatzen. Aspaldiko lagun baten ama da. Laguna ETAkoa zen. Barkamenerako joera ez ikusteak ezinegona sortzen dio Agerreri. Beldurra eta erruduntasuna sortzen zaizkio. Kulpa, bi arrazoiengatik: gaztetan ez omen zuelako herriaren alde nahikoa egin, eta, bestalde, krimenak ez zituelako behar bezala salatu. Abertzalea izan beharraren zama ere egon da. Bi beldurrak eta bi erruduntasunak ez ditu gainditu, eta horregatik emakumearen barkamena bilatuko du».

Liburuan alabak 'ekidistantzia' aipatzen dio aitari, erdibidean geratu izana leporatzen dio. Juan Luis Zabalak, ordea, ez du uste ekidistantzia dagoenik. «Pertsonaia eta egilea ez dira pertsona bera, baina ez du uste pertsonekiko, aberriarekiko edo euskararekiko ekidistanzia dagoenik. Zalantza handiak dauzka eta saiatzen da dena ulertzen. Nobela ez da ekidistantiaren ezta manikeoa ere. Hasieran ETA ez zen gero izan zena, eta sekulako babesa zuen», azaldu zuen idazleak. Amnistiaren Aldeko Batzordearen logoa Eduardo Chillidak egin zuela 1976an jarri zuen horren adibide gisa.

Kulpaz gain, autore azkoitiarrak beste bi gai identifikatu ditu bere eleberrian. Alde batetik, «belaunaldien arteko desberdintasunak» eta, bestetik, «ultraeskuinaren gorakada Europan». Lehen gaiaren inguruan, aipatu zuen nobelaren narratzailea Ane, «euskalduna dela baino ez du bizitzen euskaltasuna. Deslokalizazio prozesua martxan dago, eta ez bakarrik enpresena, jendearena ere». Ultraeskuinaren kontuan, «Anek lagun italiar bat dauka eta Meloniri ematen dio botoa. Baina neska irekia eta feminista da. Boto ematen du berari komeni zaion munduaren alde, eta ez mundu hobe baten alde». Gizarteak begirada ikuspuntu horretarantz desbideratu duela nabaritzen du Zabalak.

Nobelan zehar hainbat egileren aipu ugari topa daitezke eta«horiek irakurrita irakurketa paraleloa» egin daitekeela dio Zabalak.

Mujika Iraolak, berriz, nobelaren «tonu intimo eta hurbila» goraipatu zuen. «Hausnarketarako gonbita egiten du. Galderak uzten ditu. Nola bizi izan gara gertatu den horrekin? Kulpa, mina, agertzen dira, baina irakurtzeko erraza da, erakargarria. Eserialdi batean irakurri daitekeela esango nuke. 'Agerre' da pentsatzen den liburu bat, irakurri ondoren hasten da. Agerre denok ezagutzen dugu», gaineratu zuen editoreak.